

Piratekin matematikaren munduan

Josu Waliño

Informatikan lizentziatua

CD-ROM jostagarri bat proposatzen du Elhuyarrek 5-8 urte bitarteko gazteek matematikekin goza dezaten. Pirata dibertigarri batzuek lagundurik, munduan zehar jolastuz ibiliko dira haurrak, jolasten duten bitartean matematika ikasiko dutelarik.



ARTXIBOKOA



ARTXIBOKOA

CD-ROMa da. Windows nahiz Macintosh sistemetan erabil daiteke. Gainera, irakasle nahiz gurasoentzako lagungarri izan daitekeen gida didaktikoa ere badu.

de bakoitzean joko-mota bat izango du, beti ere matematika lantzen lagunduko dion jokoak:

Ness lakuan geometria landuko du. Horretarako, pieza geometrikoak erabiliz agertuko zaizkion irudiak osatu beharko ditu. Azteken altxorren jokoa, tenpluak eskatutako ezkutuko kodea asmatu beharko du altxorra aurkitu ahal

“proiektua guztira sei CD-ROMez osatzen da, matematikako hiru eta hizkuntzako beste hiru”

Bost joko, bost herrialde

Bost herrialdetara bidaiatu egingo du gazteak piraten laguntzarekin. Herrial-



ARTXIBOKOA

“PIRATEKIN MATEMATIKAREN MUNDUAN 1” izeneko CD-ROM hau, lehen hezkuntzan dauden hutsuneak bete nahi dituen proiektuaren zati da. Proiektua guztira sei CD-ROMez osatzen da, matematikako hiru (lehen hezkuntzako ziklo bakoitzetarako bat) eta hizkuntzako beste hiru. Orain aurkezten dugun hau matematikako lehen zikloko



izateko. Pazko uhartean lagun bereziak sortu beharko ditu, berak nahi dituen belarri-, begi- eta aho-kopurukoak. Munduko uharte batzuetan dauden zeru harrigarrietako izarrak lotu beharko ditu eragiketa matematikoen bitartez eta hori ez ezik, pirata-ontziko sotoan dauden barrikak ere txukundu beharko ditu.

“irakasle nahiz gurasoentzako lagungarri izan daitekeen gida didaktikoa ere badu”

Joko guztietan hiru zailtasun maila daude. Zailtasun mailaren arabera, bete beharreko matematika eragiketak zaildu egingo dira kasu batzuetan, edo ariketa mota aldatu egingo da beste batzuetan. Pazko uhartean erabiltzaileak bi maila desberdin izango ditu: libretea eta gidatua. Maila librean, haurrak berak libreaki jokatu ahal izango du; gidatuan, berriz, ordenagailuak esandakoa bete beharko da.

Erabiltzaileak behar duen kasu guztietan kalkulagailu berezi bat izango du eskura, eta baita ordenagailuak berak eskaintzen dion laguntza ere. ☐

Windows & Macintosh

Ordenagailuen gutxieneko ezaugarriak:

PC bateragarria


- 486 prozesadorea edo azkarragoa
- 8 Mb-eko RAM memoria
- SVGA txartela (256 kolore)
- CD-ROM irakurgailua
- 16 bit-eko soinu-txartela

Macintosh

- PowerPC prozesadorea edo berriagoa
- 8 Mb-eko RAM memoria
- CD-ROM irakurgailua
- 7.5 sistema eragilea edo berriagoa
- 256 koloreko monitora

Itsuek erabiltzeko ordenagailu eramangarria

Itsuek ere ordenagailua erabil dezakete. Merkaturatu berri duten ordenagailu eramangarriak, testu-prozesadorea, agenda pertsonala eta posta elektronikoa ditu pertsona itsuentzat. Ordenagailu hau Windows CE sistema eragilean oinarritutakoa da eta informazioa Braille lengoaiaz idatzi eta irakurtzeko aukera ematen du.



ARTXIBOKOA

Bill Gates deabrua ote?

Profeziak hala dio: “Bere izenak piztiaren zenbakia izango du”. Oinarri honetatik abiatuz, Bill Gates demonioa dela diote hainbatek, bere izenaren letrak ASCII bihurtuz 666 zenbakia lortzen baita. Hauek dira balioak: B 66, I 73, L 76, L 76, G 71, A 65, T 84, E 69, S 83. Honek 663 ematen du, baina bere izena William Henry Gates III denez, azken hirua gehituz 666. Hori ez ezik, MS-DOS 6.21ek eta Windows 95ek biek ere 666 zenbakia ematen dute ASCII koderaz bihurtuta. Egia ote?



ARTXIBOKOA

WinZip ezagunaren bertsio berria

Zalantzarik gabe WinZip da Windows-en gehien erabiltzen den konprimatzailea eta ondorioz ZIP formatua da konprimatutakoetan zabalduena. Aplikazio honek arrakasta, shareware moduan banatzen den programa izateaz gain, eskaintzen duen konpresio-maila ona duelako eta erraz erabil daitekeelako du. Orain, bere 8. bertsioa kaleratu dute eta honako helbidean dohain behera karga daiteke: www.winzip.com



ARTXIBOKOA